

## Inbertsio-printzipioen deklarazioa

### Izarpension Autonomoak Misto 50 Lehentasunezko Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Plana, Euskadiko norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kolektiboarentzat

<p><b>1.&gt; Aurreikuspen-planaren identifikazio-datuak</b></p> <p>&gt; ▶ <b>Aurreikuspen-planaren datuak</b></p> <p><b>a. Izena</b> Izarpension Autonomoak Misto 50 <b>b. Sistema</b> Enplegu-sistemako aurreikuspen-plana</p> <p>&gt; ▶ <b>Aurreikuspen-planaren erakunde sustatzailearen eta gordailuzainaren datuak</b></p> <p><b>a. Izena</b> Caja Laboral Popular Coop. de Crédito <b>b. Egoitza soziala</b> Jose Maria Arizmendiarrrieta pasealekua zk.g. 20500 Arrasate (Gipuzkoa) <b>c. IFZ</b> F75076935</p>	<p>&gt; ▶ <b>Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen datuak</b></p> <p><b>a. Izena</b> Izarpension EPSV, Enplegukoa <b>b. BGAEaren erregistro-zk.</b> 139-G <b>c. IFZ</b> V48509616</p> <p>&gt; ▶ <b>Planaren inbertsio-orientazioa</b></p> <p><b>a. Kategoria</b> Errenta aldakor mistoa</p>
<p><b>2.&gt; Inbertsio-printzipioen deklarazioa</b></p>	
<p>&gt; ▶ <b>Inbertsio-irizpidea</b></p>	<p>Planaren aktiboa ohiko bazkideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, gehienbat merkatu arautuetan, irizpide hauek kontuan hartuta: segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dibertsifikazioa, diru-kongruentzia eta planaren helburuekin bat datozen epeak.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Balorazio-irizpidea</b></p>	<p>Planaren aktiboak, funtsean, merkatu-prezioan edo burutzapen-balioan baloratuko dira, indarreko legerian jasotako jarraibideen arabera.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Banaketa estrategikoa</b></p>	<p>Errenta finkoa: % 50 Errenta aldakorra: % 50</p>
<p>&gt; ▶ <b>Inbertsio-politikaren mugak</b></p>	<p>Planak indarreko legeriak eta, bereziki, 97/2007 Dekretuaren 11. artikulua ezarritako inbertsio-mugak errespetatuko ditu; hain zuzen, errenta aldakorrean % 50 inbertituko du gehienez, eta % 40 gutxienez. Errenta aldakorren jaulkitzaileak ELGAkoak izango dira, Europakoak eta Estatu Batuetakoak bereziki. Errenta finkoa euroguneko gobernuek eta Estatu Batuetako Altxorrek jaulkitako zor publikoko aktiboetan inbertituko da, bai eta eurotan jaulkitako errenta finko pribatuan ere. Errenta finkoko jaulkipenek kalitate ertaina (BBB- mailakoa edo handiagoa) izango dute gutxienez, edo, hori baino txikiagoa bada, Espainiako Erresumaren unean-uneko ratingaren parekoa. Gehienez ere esposizio osoaren % 10ek izan ahal du kalitate txikia (BBB- mailatik beherakoa). Errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupena 1 eta 5 urte bitartekoa izango da.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Aktibo egokiak</b></p>	<p>Indarreko legeriak une bakoitzean baimentzen dituen aktibo egokietan inbertitu ahal du planak, betiere inbertsio-politikan ezarritako mugak aintzat hartuta.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Deribatuak</b></p>	<p>Planak tresna deribatuetan inbertitu ahal izango du, indarreko legeriari jarraituz, bai estaldura-eragiketetan, bai inbertsio-eragiketetan, arrisku-profila aintzat hartuta.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Arrisku-profila</b></p>	<p>Aurreikuspen-plan honek arrisku-profil handia du.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Inbertsioei atxikitako arriskuak</b></p>	<p><u>Merkatu-arriskua.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Errenta finkoa: zorroko aktiboen iraupenaren, kreditu-kalitatearen eta jaulkitzailearen herrialdearen arabera izango da balorazioa.</li> <li>- Errenta aldakorra: errenta aldakorreko aktiboetan egiten diren inbertsioek hegakortasun handia izan dezakete, eta, beraz, merkatu-arriskua egon daiteke.</li> <li>- Deribatuak: palanka-efektua duten aktiboak dira; hortaz, eskudirutako inbertsioek berez dituztenez gain, beste arrisku batzuk ere badituzte.</li> <li>- Dibisa: euroaz bestelako dibisetako aktiboetan inbertitzeak kanbio-tasaren gorabeheren ondoriozko arriskua dakar.</li> <li>- Kotizatu gabeko aktiboak: likidezia-arriskua dute, gainerakoez gain.</li> </ul> <p><u>Kontrako alderdiaren arriskua.</u> Jaulkitzaileak bere ordainketa-betebeharrak ez betetzeko arriskua da.</p> <p><u>Likidezia-arriskua.</u> Dirua itzultzeko edo iteerrako intsuldaketa egiteko aginduak bete ezin izateko arriskua da.</p> <p><u>Lege-arriskua.</u> Arauk zein Gobernu Batzordeak ezarritako inbertsio-irizpideak ez betetzeko arriskua da.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Inbertsioen arriskuak neurtzeko metodoak eta kontrolatzeko prozedurak</b></p>	<p><u>Merkatu-arriskua.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Errenta finkoa. Planaren iraupena 1 eta 5 urte bitartekoa izatea kontrolatuko da. Aktiboen jaulkitzaileak ELGAkoak izango dira.</li> <li>- Errenta aldakorra. Planaren gehieneko eta gutxieneko ehunekoak kontrolatuko dira, baita legez ezarritako gehieneko mugak ere. Planak nazioarteko bokazioa du; batik bat, Europakoa eta AEBkoa.</li> <li>- Deribatuak. Deribatuetako posizioaren deltax bat egiten du eskudirutako posizioarekin, errenta finkoko inbertsioaren iraupen-muga eta errenta aldakorreko inbertsioaren ehunekoak kontrolatzei dagokionez.</li> <li>- Dibisa. Planak euroaz bestelako dibisekin duen esposizioa kontrolatuko da.</li> </ul> <p><u>Kontrako alderdiaren arriskua.</u> Jaulkitzailearen kalitatea kontrolatuko da, inbertsio-politikaren mugei buruzko atalean ezarritako mugari jarraikiz.</p> <p><u>Likidezia-arriskua.</u> Bazkide partaideen mugimenduei erantzuteko beharrezko likidezia egunero kontrolatuko da.</p> <p><u>Lege-arriskua.</u> Planaren inbertsioek unean-unean indarrean dagoen araudia zein Gobernu Batzordeak emandako irizpideak betetzen dituztela kontrolatuko da.</p>
<p>&gt; ▶ <b>IGA politika</b></p>	<p>Izarpension EPSVko Gobernu Batzordeak inbertsio jasangarri eta arduratsuari buruzko politika onetsi du; hau da, aktiboak aukeratzekoan eskusio- eta balorazio-irizpideak erabiliko dira.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Esperotako errentagarritasun-helburua</b></p>	<p>Administrazio-gastuak kenduta ateratzen den errentagarritasuna, planaren banaketa estrategikoaren arabera, errenta finkoan % 50 eta errenta aldakorrean % 50 inbertituta.</p>
<p>&gt; ▶ <b>Likidezia-koefizientea</b></p>	<p>Prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du planak, Gobernu Batzordeak onartua. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta diru-merkatuko aktiboetan mantenduko da, betiere gehienez ere 3 hilabeteko muga-eguna badute.</p>